

HEZKUNTZA KLIMATIKOARI BURUZKO JARDUNALDIA: JASANGARRITASUNA EKINEAN

2023ko abenduak 1
BBK Urdaibai Zentroa (Busturia)

SARRERA

HEZKUNTZA KLIMATIKOA: JASANGARRITASUNA EKINEAN izeneko jardunaldiak abagunea eskaini nahi du **jasangarritasunerako hezkuntzan lan egiten duten hainbat euskal eragilek** ahalduztearen eta hezkuntza klimatikoaren inguruan **sakondu eta hausnarketa egin dezaten**, eta gertuko esperientzia berritzaileak eta funtzionatzen dutenak ezagut ditzaten.

UN Etxeak sustatu du jardunaldia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin eta BBK Klima erakundearekin lankidetzan, eta helburu nagusia da gaur egungo testuinguruan klimaren aldeko hezkuntzak duen garrantzia ezagutzea, praktikan nola jarri aztertzea eta, aldi berean, ildo horretako esperientzia arrakastatsuek ezagutzea, hezkuntza klimatikoan aurrera egiteko, ezagutzaren, ahalduztearen eta ekintzaren bidez.

ESPARRUA

Hezkuntza funtsezko elementua da klimaren aldeko ekintza sustatzeko; pertsonak krisi klimatikoaren ondorioak ulertzea eta horiei aurre egitea errazten duen tresna da, eta horretan ari direnei aldaketaren eragile izateko behar dituzten ezagutzak, balioak eta gaitasunak ematen dizkie (UNESCO).

Nazioarteak onartzen du hezkuntzak eta prestakuntzak garrantzi handia dutela klima-aldaketaren aurkako borrokan. Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak, Parisko Akordioak eta Ahalduzte Klimatikorako Ekintza programak (ACE) aldarrikatzen dute eragile publiko eta pribatu guztien inplikazioa behar dela hezkuntzan eta ahalduzte-lanean, klima-aldaketarekin lotutako politikari eta ekintzei dagokienez.

HELBURUAK

- Aurrera egitea hezkuntzan, kontzientziazioan eta ahalduzte klimatikoan, ekintzara pasatzeko, ezagutza aurreratuaren eta hezkuntza-esperientzia eraldatzaileen bidez.
- Hezkuntza-ikuspegi berritzaileak eskaintzea eta hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren programa pedagogikoak hobetzea.
- Lankidetzan, elkarrizketa eta esperientzien trukea sustatzea, ezagutzaren eta hezkuntza eraldatzailearen bidez hezkuntza klimatikoan aurrera egiteko.

NORI ZUZENDUA

Hezkuntzaren eta/edo garapen jasangarriaren arloko eragileak, esparru formalekoak nahiz informalekoak.

PROGRAMA

- 9:00 - 9:30 ONGIETORRIA PARTE-HARTZAILEEI
- 9:30 - 9:45 IREKIERA INSTITUZIONALA
Joseba Ruiz de Loizaga, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-hezkuntza eta prestakuntzako zerbitzuaren arduraduna
Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritza
Leire Zarate, BBK Urdaibai Zentroa
Arantza Acha, UN Etxea
- 9:45 – 11:15 HEZKUNTZA KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN. ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA, ETA NOLA EGIN.
Charo Morán, Ekologistak Martxan, GARUA eta FUHEM
- 11.15 -11:45 Kafea hartzeko atsedena
- 11:45 -13.00 ESPERIENTZIAK HEZKUNTZA KLIMATIKOAN:
- **Kepa Atristain y Eneritz Intxausti**, UIHP proiektua (Urdaibaiko Ingurumen Hezkuntza Proiektua). BBK Klima
 - **Malake Muñoz**, Herritarrak klima-aldaketari dagokionez ahalduentzeko ekintza-plana (Urban Klima). IHOBE
 - **Jonan Gómez** Lauro Ikastola (*euskeraz*)
 - **Isaak Aranbarri**, Zumaiena Ikastetxea (*euskeraz*)
 - **Leire Olano**, Gazte ekoliderrak. Kutxa Fundazioa (*euskeraz*)
- 13.00 – 13.30 BBK KLIMA HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA INSTALAZIOAK BISITATZEA.
- 13.30 – 13:45 ONDORIOAK ETA AMAIERA

HIZKUNTZA

Aurkezpenak gaztelaniaz egingo dira, kontrakoa adierazi ezean. Bermatu egingo da hizlariak eta publikoak euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko duten eskubidea.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA

<https://forms.gle/sEErsyk4is7n7Mbo9>

LAGUNTZAILEAK:

